

### I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

#### INGURUMEN ETA HIRIGINTZA SAILA

**309/2018 Foru Agindua, urriaren 30ekoa, hasierako onespena ematen diona Zuiako udalerrian, Lukiano eta Bitorianoko herrien artean, A-4415 errepidearen paralelo zuntz optiko motako banda zabala jartzeko obren interes publikoa adierazteko espedienteari**

#### AURREKARIAK

Telefónica SAU sozietateak obra baimena eskatu dio Zuiako Udalari Lukiano eta Bitorianoko herrien artean zuntz optiko motako banda zabalaren instalazioa kanalizatzeko. Hodi hirukoitza sartuko da zangan, 1.971m metroko luzera duena, eta D motako bi kutxatila eraikiko dira in situ, Banda Zabalaren Belaunaldi Berriko Sareak zabaltzeko programaren barruan.

Kanalizazioa Z8 motako -Nekazaritza eta Abeltzaintza Zona eta Landazabalak- lurzoru urbanizaezinetik joan beharko litzateke, Azaleko Uren babes Zona -Z4- zeharkatu, hori guztia A-4415 errepidearen paralelo, 30-60 metroko distantziara, gutxi gorabehera, eta azken tartean Z3 motako zona -Erabilera tradizionala duen balio zientifiko eta/edo natural bereziko babes zona- zeharkatuko luke. Ibilguren bat ere zeharkatuko luke, eta Ugalde ibaia behintzat behin.

Zuiako Udalak espedientea bidali du, eta eskatu du izapidetu dadila proiektuaren interes publikoaren adierazpena, ekainaren 30eko 2/2006 Legeak, lurzoru eta hirigintzarenak, bere 28.5. a) artikuluan xedatutakoa betetzeko; eta eskaerarekin batera udaleko arkitektoak eginiko txostena aurkeztu du.

#### OINARRIAK

Ingurumen eta Hirigintza Sail honek eskumena du aztertzen ari den espedientea ebazteko, Diputatu Nagusiaren uztailaren 3ko 133/2015 Foru Dekretuaren arabera, eta Sailaren egitura organikoa eta funtzionala onartzen duen Diputatuen Kontseiluaren otsailaren 9ko 17/2016 Foru Dekretuak 18.c) artikuluan xedatutakoaren arabera.

Bat etorri, lurzoruari eta hirigintzari buruzko 2/2006 Legeak 28.5.a) artikuluan ezarritakoarekin, lurzoru urbanizaezinean ezingo dira gauzatu aplikatzekoa den arloko legeriak edo lurralde antolamenduak interes publikoko deklaraturako zuzkidura, ekipamendu eta jarduerak berariaz ezartzeko jardunak baizik, zeinak, betiere, dagokion foru diputatuak ebazpen bidez deklaratu behar baititu interes publikoko, hogeit egunez jendaurrean edukitzeko izapidea bete ondoren.

Aztertutako kasuan, hasierako onespena izapide bat baino ez da, hots, prozedura bultzatzen duen eta edukia argitaratzea ahalbidetzen duen izapidea baino ez, eta ez du xedatzen, inondik inora, behin betiko onespenerako hartu beharreko erabakirik.

Horregatik, dagozkidan ahalmenak erabiliz, honako hau,

#### XEDATZEN DUT

Lehenengoa.- Hasierako onspena ematea Telefónica SAUk sustatutako, eta Zuiako Udalak izapidetutako espedienteari, interes publikotzat jotzeko Lukiano eta Bitorianoko herrien artean, A-4415 errepidearen paralelo zuntz optiko motako banda zabala jartzeko obrak gauzatzea.

Bigarrena.- Espedientea jendaurrean jartzea, hogeit hamar eguneg, foru agindu hau ALHAOn argitaratzen denetik aurrera. Epe horretan, nahi duen orok egoki iritzitako alegazioak aurkeztu ahal izango ditu. Espedientea Lurralde Antolamenduaren eta Hirigintzaren Zerbitzuan dago interesdunen eskura, azter dezaten.

Gasteiz, 2018ko urriaren 30a

*Ingurumen eta Hirigintza Saileko foru diputatua*  
*JOSEAN GALERA CARRILLO*